

# XEDAPEN OROKORRAK

## SEGURTASUN SAILA

### 5415

*AGINDUA, 2020ko abenduaren 4koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez bosgarren aldiz aldatzen baita Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen agindua.*

Herrizaingo sailburuaren 2001eko abuztuaren 1eko Aginduaren bidez, Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartu ziren eta Larrialdietan Koordinatuta Esku Hartzeko Zerbitzua sortu zen (2001eko irailaren 13ko EHAA, 178. zk.). Agindu hori, gerora, aldatu egin zen, honako hauen bidez: Herrizaingo sailburuaren 2007ko martxoaren 20ko Agindua (2007ko apirilaren 16ko EHAA, 72. zk.); Herrizaingo, Justizia eta Administrazio Publikoko sailburuaren 2012ko urriaren 8ko Agindua (2012ko urriaren 24ko EHAA, 207. zk.); Segurtasuneko sailburuaren 2016ko otsailaren 1eko Agindua (2016ko irailaren 9ko EHAA, 26. zk.), eta Segurtasuneko sailburuaren 2018ko azaroaren 20ko Agindua (2018ko abenduaren 4ko EHAA, 233. zk.).

Azken urteotako esperientzia kontuan hartuta, taktika operatibo jakin batzuk berrikusi dira, gaur egungo errealitatera moldatzeko eta erantzunaren efikazia areagotzeko. Halaber, hiru taktika berri gehitu dira, egoera berezi batzuetan jarduteko prozedurak hobetzeko asmoz:

1) Egitura kolapsatuetan bilatzeko eta erreskatatzeko EKBE taktika: Egitura-kolapsoren bat duten intzidentek, tartean biktimak edo desagertutako pertsonak daudenean.

2) Jokabide suizidak dituzten intzidenteetarako JSI taktika. Taktika hau aktibatuko da pertsona batek bere burua hiltzeko ebidentzia esplizitua edo inplizitua dakarren jardueretan. JSI aplikatuko da kasuari lotutako informazioak egiazkoa izateko zantzuak dituenetan eta biktimaren benetako edo gutxi gorabeherako kokalekua zein den jakiten denean.

3) PIGM taktika (Euskadiko Larrialdietarako Plan Berezia aktibatzea, itsasertzeko kutsaduraren aurrean –ITSASERTZA–). Taktika honek barne hartzen du dagozkion Larrialdi Erakunde eta Zerbitzuentzako prozedurak eta abisuak aktibatzea, itsasertza kutsaduraren aurrean Euskadiko Larrialdi Plan Berezia aktibatzeari dagokionez.

Taktika operatiboak berregiteko orduan, inplikaturako erakundeen eta entitate publiko eta pribatuen lankidetzak izan da, betiere 1/2017 Legegintzako Dekretua, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bateginaren 25. eta 26.2 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Era berean, taktika operatibo berriek Euskadiko Babes Zibilerako Batzordearen aldeko irizpena jaso zuten, 2019ko abenduaren 18an.

Horrenbestez, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– 1.– Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren taktika operatiboak onartzen dituen eta Larrialdietan Koordinatuta Esku hartzeko Zerbitzua sortzen duen Herrizaingo sailburuaren 2001eko abuztuaren 1eko Aginduaren eranskinetako II. atalean aurreikusitako taktika operatiboak aldatzen dira. Zerbitzua sortzen duen agindua.

2.– Inplikaturako zerbitzu guztiei jakinaraziko zaizkie aldatutako teknika operatiboak.

#### AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 4a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburua,  
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.

## ERANSKINA

## TAKTIKA OPERATIBOEN ZERRENDA OROKORRA

## 1.– MENDIALDEA/LANDA/HIRIEN KANPOALDEA (MENDI):

- M1: Mendiko/landako edo hirien kanpoaldeko erreskateak. Mendialdean, landan edo hirien kanpoaldean dauden pertsonen denetariko erreskateak.
- M0: Desagertutako pertsona.
- M2: Mendian, landan edo hirien kanpoaldean bilatzea. Mendian, landan edo hirien kanpoaldean desagertutako edo galdutako pertsonen bilaketak.
- Koba: Lurpeko erreskateak, mendian edo landan, espezializazioa edo erreskateko bitarteko edo teknika bereziak behar direnean.

## 2.– URETAN (URA):

- U1: Itsas salbamendua (kanpoko urak). Itsaso zabalean pertsonak edo ondasunak salbatzea (baita nabigatzen ari diren ontzietako suteetako salbamenduak ere).
- U2: Itsasertzeko salbamendua. Itsasertzean edo kostaldean dauden pertsonak edo ondasunak salbatzea edo gorpuak berreskuratzea.
- U3: Barruko uretako salbamendua. Ibaietan edo urtegietan dauden pertsonak erreskatatzea edo gorpuak berreskuratzea.

## 3. - SUTEAK (SUTEGI):

- SG1: Hiriko/landako sutea. Hirian edo hiritartutako landa-eremuetan sortutako sutea.
- SG2: Baso-suteak. Basoetako, sasieta, larretako, laboreetako eta antzekoetako sutea.
- SG3: Industria-sutea. Jarduera industrialaren duen edozein enpresatan edo biltegitan sortutako sutea, hirigunean zein landan.
- SG10: Hiri-altzarien sutea.

## 4.– SALGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEA: TPC/TPF

Errepideko zirkulazioko edo trenbideko edozein istripu, gai arriskutsuak tartean:

- TPC1-TPF1- Garraioko ibilgailuari edo konboiari aurrera egitea galarazten dion matxura edo istripua; hala ere, garraiatutako gai arriskutsuen edukitzailea egoera onean dagoenean eta irauli edo errailetik atera ez denean.
- TPC2-TPF2 - Istripuaren ondorioz edukitzailea hondatu da edo irauli edo errailetik atera da; hala ere, ez dago edukiaren ihesik edo isuririk.
- TPC3-TPF3 - Istripuaren ondorioz edukitzailea hondatu da eta edukiak ihesa edo isuria du.

- TPC4-TPF4 - Edukitzailea hondatuta edo sutan dago eta eduki-ihesa dago,ugar eta guzti.
- TPC5-TPF5 - Edukiak eztanda egin du, eta edukitzailea suntsitu.

#### 5.– INDUSTRIA:

- KIMIKA: Enpresako gai arriskutsuekiko intzidentea (oliobideak eta pirotekniak barne). Jatorri kimikoa duten istripuak dira, edozein enpresatan sor daitezkeenak, baita deklaratu beharra dutenetan ere. (SEVESO).

#### 6.– TRENBIDEA

- T1: Harrapatzea. Pertsonak zein ibilgailuak harrapatzea.
- T2: Errailetik ateratzea, elkar jotzea, talka edo sutea.

#### 7.– HEGAZKINTZA:

- XORI-1: Aireportutik kanpoko aireontzi-istripua. Aireontzi bat tartean den edo izan daitekeen edozein intzidente.
- TXORI-A: Vitoria-Gasteizko aireportuko aireontzi-istripua (Foronda).
- TXORI-B: Bilboko aireportuko aireontzi-istripua (Loiu)
- TXORI-G: Donostiako aireportuko aireontzi-istripua (Hondarribia)

#### 8. - HIRIA (HIRI):

- H1: Hiriko erreskatea. Hirian pertsonak erreskatatzea (igogailuetan, barruko patioetan eta abarretan (harrapatuta).
- HA: Hirian arriskuak detektatzea (fatxadak, teilatuak, zuhaitzak eta abar erortzeko arriskua).

#### 9.– NRBQ:

- N: NUKLEARRA
- GAROÑA 0: Santa Maria de Garoñako zentral nuklearreko instalazioetan gertatutako istripuak. Ez da kanpoko laguntzarik behar.
- GAROÑA 1: PENBU garatzea.
- RBQ: Intzidente hauetan, tartean dira material edo instalazio erradioaktiboak / elementu, material edo hondakin biologikoak / elementu edo material kimikoak, baldin eta aurreikusita ez badaude SG3, KIMIKA, SEVESO, TPC/TPF ingurumen-kutsadurako taktiketan, eta Santa Maria de Garoñako zentral nuklearrari eragiten ez badiote.

#### 10.– GASA:

- GASA: ihesa, sutea, eztanda. Gas hidrokarburoen (metano, propano, butano, gas naturalen) ihesik, suterik edo leherketarik izan den edozein egoera.

#### 11.– INGURUMENA

- IGA: Airearen kutsadura
- IGR: Ibai/urtegien kutsadura.
- IGM: Itsaso/marea-gunearen kutsadura. Itsasoko uretako eta marearen eraginpeko gunetako eragina (itsasadarrak, estuarioak...).
- IGT: Lurraren kutsadura – hondakinak. Lurreko eragina, nekazaritzako, industriako, etxeetako eta abarretako edozein hondakinen agerpena barne.

#### 12.– EGURALDI TXARRA (METEO) / Basoak su hartzeko arriskua (BASOA)

##### 1.– Eguraldi txarrari buruzko informazioa / Basoak su hartzeko arriskuari buruzko informazioa:

- METEO
- BASOA: Baso-suteen arriskuari buruzko informazioa.

##### 2.– Eguraldi txarrak eragindako intzidenteen kudeaketa:

- UHOLDE: Uholdeak
- ELURRA: Elurteak
- GALERNA: Galernak
- HAIZEA: Haizeak

#### 13.– HORNIDURA (ERAMAN)

- ERAMAN: Herritarrak eta ondasun materialak hil edo biziko, oinarrizko eta beharrezko gaiez hornitzeko egin behar diren ekintza guztiak (hil edo biziko eta presako izaeraz).

#### 14.– LUIZIAK - LUR-IRRISTATZEAK

- LURRA: Lur-higidurek eragindako intzidente-mota guztiak (luiziak, lur-irristatzea, etab.), eta pertsonaren bat lurperatuta egonez gero, haren erreskatea ere.
- SEISMOA: Mugimendu sismikoak detektatzea Euskadin edo erkidego mugakideetan.

#### 15.– EBAKUAZIOA - OSTATUA

- HOTELA: Intzidente batek ukitutako pertsonen ebakuazioa edo ostatua eman beharra eskatzen duen egoera oro.

## 16.– URTEGIAK

1.– Urtegiak urez husteko edo turbinatzeko eragiketen inguruko jakinarazpenez informatzea:

- URIBA: Uríbarri Ganboa urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.
- UNDURR: Undurraga urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.
- URRUNA: Urrunaga urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.
- SOBRON: Sobron urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.
- AÑARBE: Añarbe urtegiko eragiketen jakinarazpenen kudeaketa.

2.– Presa/urtegietako intzidenteen kudeaketa:

- URTEGI: Presak edo urtegiak apurtzeko edo gainezka egiteko aukerarekin zerikusia duten era guztietako intzidenteak.

## 17.– ZIRKULAZIO-ISTRIPUAK (TG)

- TG1: Zauriturik gabeko zirkulazio-istripu guztiak.
- TG2: Zaurituak edo harrapatutakoak dituzten zirkulazio-istripu guztiak.

## 18.– BIKTIMA ASKOKO INTZIDENTEAK (IMV)

- IMV: barnean hartzen ditu ibilgailu asko edo autobusak, trenak, itsasontziak, aireontziak dauden istripu guztiak, edo egiturazko kolapsoak, pertsona askorenganako eragina izanik: hildakoa, zaurituak edo harrapatuak.

## 19.– APARTEKO INTZIDENTE BORTITZAK (AIB)

- AIB: Nahitako intzidenteak, gertatzen ari direnak, indarrez eraginak —egitez edo mehatxuz—, ekintza oldarkor zein bortitzen bitartezkoak, norbanakoek edo taldeek eginak, pertsonen, ordenari, ondasunei edo ingurumenari garrantzizko kalteak eragiteko modukoak. Intzidente horietara honako gertaera hauek biltzen dira: ekintza terroristak, bahiketak, mehatxu bortitzak, manifestazio bortitzak eta aurrekoekin pareka daitekeen beste edozein. Ertzaintzari dagokio zehaztea zein diren aparteko intzidente bortitzak (AIB), berak zuzenean edo SOS-DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak gertaeraren berri eman eta gero.

## 20.– EGITURA KOLAPSATUETAN BILATZEA ETA ERRESKATATZEA: EKBE

- EKBE: egitura-kolapsoren bat duten intzidenteak, tartean biktimak edo desagertutako pertsonak daudenean.

**21.– JOKABIDE SUIZIDAK DITUZTEN INTZIDENTEAK: JSI**

- JSI: pertsona batek bere burua hiltzeko ebidentzia esplizitua edo inplizitua duten jarduerak.

**22.– LAN-ISTRIPUAK (PG1)**

- PG1: lanagatik edo lana dela eta izandako gorputz-kalte guztiak, baldin eta sorburutzat badute kanpoko kausa baten ekintza bat, bat-batekoa edo bortitza bera, edo izandako lesioak, kausa edozein dutela.

**23.– BIDE PUBLIKOETAKO ISTRIPUAK (PG3)**

- PG3: bide publikoan gertatutako edozein istripu, zaurituak ere badituena.

**24.– PIGM**

- Euskadiko Larrialdietarako Plan Berezia aktibatzea, itsasertzeko kutsaduraren aurrean
- ITSASERTZA-). Taktika honek barne hartzen du dagozkion Larrialdi Erakunde eta Zerbitzuentzako prozedurak eta abisuak aktibatzea, itsasertza kutsaduraren aurrean Euskadiko Larrialdi Plan Berezia aktibatzeari dagokionez.

**25.– LARRIALDIETARAKO PLANAK AKTIBATZEA**

- KLP: KANPOKO LARRIALDI PLANAK
- PLABI: EUSKADIKO BABES ZIBILEKO PLANA
- PUHOLDE: UHOLDE ARRISKUENGATIKO LARRIALDI PLANA
- PBASOA: BASO-SUTEEN ARRISKUENGATIKO LARRIALDI PLANA
- PSISMO: ARRISKU SISMOENGATIKO LARRIALDI PLANA
- PTPCF: ERREPIDEAN ETA TRENBIDEAN SALGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEKO ARRISKUARENGATIKO LARRIALDI PLANA.
- PRADIO: ARRISKU ERRADIOLOGIKOETARAKO LARRIALDI PLANA
- PIGM: ITSASERTZA KUTSATZEAGATIKO LARRIALDI PLANA